# GAIA: ORDEZKARIEN ERREGISTROAN ELKARTEETAKO KIDEEI ORDEZKAPENA EMATEKO INSKRIPZIO ESKABIDEA EGITEKO GIDA

Ordezkarien erregistro elektronikoan elkarteetako kideei ordezkapena emateko inskripzio-eskabidea egiteko gida aurkezten dugu.

Lankidetza-proiektu honi esker, elkarteek aplikazio bat eskura dezakete Interneten Ordezkarien erregistro elektronikoan era erraz, seguru eta autonomoan online inskribatu ahal izateko.

- http://www.euskadi.eus/ordezkariak-elkarteak

| | |
|---|---|
| Sartu Interneteko helbide honetan:<br><br>http://www.euskadi.eus/ordezkariak-elkarteak |  |

<table>
<tr>
<td>Hautatu “Kontsultatu eskema grafikoan identifikazio elektronikorako bitartekoak” aukera.</td>
<td>




</td>
</tr>
<tr>
<td>Grafikoak eskuratu nahi duzun identifikazio elektronikorako bitartekoari dagokionez dauzkazun beharrizanak identifikatzen lagunduko dizu.</td>
<td>




</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| Zure beharrizana B aukera (doakoa) bada, hautatu **“Online inskripzioa Ordezkarien erregistro elektronikoan”** botoia. |   |
| **Oharra:** Nahitaez bete beharreko eremuak izartxo batez (*) markatu dira |   |

<table>
<tr>
<td>

**Gakoa balidatu**

Datuak sartu:

- **Erregistro-zk.**
- **Sinadura-gakoa**

zure elkarteak jaso duen jakinarazpen pertsonalizatuaren goialdean agertzen dira.

Hautatu **“Onartu”** botoia.

</td>
<td>




</td>
</tr>
<tr>
<td>

**Elkartearen datuak**

Erregistro-zk. eta Sinadura-gakoa eremuak balidatu ondoren, **Sozietatearen izena** eremuan, elkartearen izena beteko da automatikoki, EAEko Elkarteen erregistroan dagoen informazioarekin.

Mesedez, sartu dagokien informazioa eremu hauetan:

- **IFZ**
- **Helbide elektronikoa**

</td>
<td>




</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| **Legezko ordezkariaren datuak**<br><br>Sartu eskatzen zaizkizun elkartearen legezko ordezkariaren datuak (**Presidentea**):<br><br>• **NAN**<br>• **Izen-abizenak**<br>• **Sexua**<br>• **Telefono mugikorraren zk.**<br>• **Helbide elektronikoa**<br><br>**OHARRA:** Gogoratu **elkarteko presidentearen** datuak sartu behar dituzula, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen erregistroan agertzen direnak.<br><br>Baldintza hori betetzen ez duten inskripzio-eskabideak **ezetsi egingo dira**, eta dagokion epean zuzendu beharko dira.<br><br>**OHARRA:** Elkarteek nahitaez jakinarazi behar dizkiote Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen erregistroari batzarraren aldaketak. |  |
| **Baimendutako pertsonaren datuak**<br><br>**Oharra:** Baimendutako pertsonaren profila da elkarteko kide bati ematen zaion profila, geroago, elkarteko beste kideei emandako ordezkapenak kudeatzeko (altak, bajak, errebokatzeak, eta abar)<br><br>Sartu eskatzen zaizkizun datuak:<br><br>• **NAN**<br>• **Izen-abizenak**<br>• **Sexua**<br>• **Telefono mugikorraren zk.**<br>• **Helbide elektronikoa** |  |

<table>
<tr>
<td>

**Jarduerak eta Prozedurak**

Sistemak, era lehenetsian, **Jarduketa guztietarako** ordezkapena ematen du:

- Eskaerak bidali
- Jakinarazpen elektronikoak jaso
- Eskaerak zuzendu
- Eta abar

Sistemak, era lehenetsian, **Prozedura guztietarako** ordezkapena ematen du.

**Oharra:** Ordezkapen orokor horri esker edozein prozedura izapidetu ahalko duzu (elkarte bat eratu, estatutuak aldatu, zuzendaritza-batzordea aldatu, laguntzak nahiz diru-laguntzak eskatu, baimenak, ziurtagiriak, erregistroetan inskribatu, eta abar) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusi honetako edozein sail eta erakunde autonomotan.

</td>
<td>




</td>
</tr>
<tr>
<td>

**Ordezkaritzaren iraunaldia**

**Bukaera-data** eremuan ezer zehazten **EZ** bada, ordezkapena 5 urterako emango da.

**Oharra:** Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2017 Legeak, 6. artikuluko seigarren zenbakian, xedatzen du erregistroan inskribatutako ahalordeek **gehienez 5 urteko balioa** izango dutela, inskripzio-datatik aurrera.

</td>
<td>




</td>
</tr>
</table>

<table>
<tr>
<td>

**Elkarteko beste kide batzuen datuak**

Elkarteko beste kide batzuei ordezkapena ematen badiezu, sartu hemen haien datuak:

- **NAN**
- **Izen-abizenak**
- **Sexua**
- **Telefono mugikorraren zk.**
- **Helbide elektronikoa**

Ondoren, **"Gehitu"** botoia hautatu.

**Oharra:** errepikatu ekintza hori ordezkapena eman nahi diezun elkarteko kide guztiekin.

</td>
<td>




</td>
</tr>
<tr>
<td>

**Erantzukizunpeko adierazpena**

**Erantzukizunpeko adierazpenari** dagokion kontrol-laukia hautatu.

(*) **Elkarteko presidente, legezko ordezkari zaren aldetik,** zure erantzukizunpean aitortzen duzu eskabide honetan azaltzen diren datuak benetakoak direla.

Administrazioak prozedurarekin ez jarraitzea erabaki dezake baldin eta izena emateko eskabide honetako datuak zehatzak ez badira, zerbait nahita esan gabe geratu bada edo faltsuak badira. Horrek ez du eragotziko izan ditzakeen beste erantzukizun penal, zibil edo administratiboek aurrera egitea.

</td>
<td>




</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| Hautatu **"Bidali izen-emate eskaera"** botoia.<br><br>**OHARRA:** Gogoratu **elkarteko presidentearen** datuak sartu behar dituzula, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen erregistroan agertzen direnak.<br><br>Baldintza hori betetzen ez duten inskripzio-eskabideak **ezetsi egingo dira**, eta dagokion epean zuzendu beharko dira.<br><br>**OHARRA:** Elkarteek nahitaez jakinarazi behar dizkiote Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen erregistroari batzarraren aldaketak. |  |
| **Baldintzak** | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko **baldintza bakarra** dago: online inskripzioaren bidez ordezkaritza lortu duten elkarteko kideek **itsasontzien jokoa / B@kQ** erabili behar dute modu elektronikoan identifikatzeko.<br><br>Identifikatzeko modu berri hori, itsasontzien jokoa /B@kQ, **doakoa da**, eta erabiltzeko ez da ezer instalatu behar ordenagailuan, ez softwarerik ez hardwarerik.<br><br>KZguneen sare osoa (247 zentro; 56 Araban, 116 Bizkaian, 92 Gipuzkoan) erabil dezakete elkarteek modu elektronikoan identifikatzen lagunduko dien itsasontzien jokoa doan eskuratzeko.<br><br>Halaber, beharrezkotzat joz gero, KZgune hurbilenean **hitzordua har dezakezu**, Ordezkarien erregistro elektronikoan inskripzioa egin ahal izateko: KZguneen kontaktu-datuak eta helbideak (PDF, 43 KB).<br><br>Mesedez, KZguneren batera bazoaz ez ahaztu Eusko Jaurlaritzak zure elkarteari bidali zion gutuna eraman behar duzula, gutun horretan zehazten direlako, batetik, zure elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistroan duen inskripzio zenbakia eta, bestetik, sinaduraren gako pertsonalizatua.<br><br>**Oharra:** gogoratu sinaduraren gakoa bakarra dela, eta isilean gorde behar dela; gako hori zure elkartearen inskripzio zenbakiari dago lotuta, eta soilik erabil daiteke elkarteari Ordezkarien erregistro elektronikoan alta emateko. |